



Fashion izan nahi, **kosta ahala kosta**: hauxe da egungo gizartean **errotzen** ari den **joera**. Baina, ze joera-klase da hau? Ze **ezaugarri** ditu? Nola sendotu da gure artean? Nori eragiten dio? **Erantzun beharreko galdera asko** daude kontsumora **bortizki** bultzatzen duen portaera honetaz.

Fashion izan nahi kosta ahala kosta



Neska-mutilen joera

Gizakiak betidanik izan du estetikaren kezka, **ardura**... Baina, gaur egun adina, inoiz ez. **Kanpoko itxuraz** arduratzen gara, eta besteen aurrean itxura horrekin azaltzeko ahalegintzen gara. Ahalegin hori **ziztu bizian** ari da indartzen, abiadura **ikaragarrian**. Modaren jarraitzaile **sutsuak** daude, menpekoak... **Marka da, gero**, baina markako arropa janzteia gusztatzen zaio jendeari... Eta edozein marka ere ez, deskuidatuz gero. Makillajeak **iraun** egin behar du aurpegian, geroz eta gehiago; hori eskatzen zaio. Esmaltea ere **zartatuko** ez dena behar da, zapata-takoiak ere geroz eta altuagoak ari dira saltzen. Eta dena doa **bide bertsutik**, bai modan, bai estetikari. Ondorioz, era bateko kontsumoa izugarri handitu du fashion izan nahiak.

Oraintsu arte emakumeak ziren estetikaren jarraitzaile edo, besterik gabe, **bezero**. Baina, gizonezkoak ere ari dira oso apurka emakumeen pare jartzen horretan. **Ukenduak** erabiltzen dituzte, pitxiak eta **osagarriak**, gimnasioak betetzen dituzte... joera hori **muturrera** eramaten dutenek izen bat dute: "metrosexualak". Azken berrikuntzaren berri badute, ileak bere tokian eramaten dituzte aurpegian eta gorputzean, eta **desitxuratuta** nola joan ere aztertzen dute, etxetik atera baino lehen. Fatxada da garrantzizkoena ia, planta oneko azaltzea.

Nerabeak dira joera hau gehien nozitzen dutenak

Urtetan aurrera doazenak izango dira estetika zaleak, dudarik ez da. **Zaletasun** hori ez da zahartzean **baztertzen** den zer-bait, gutxi-asko eutsi egiten zaio. Baina, fashion zalerik handienak, batzuetan larregi, gazteak dira, eta **nerabeak**, baina agian haurrak dira babesik gutxiena dutenak. Iragarkien eraso geroz eta bortitzagoa da. Eta itxura ona izatea **hainbat lorpeni uztartuta** agertzen da. Besteak beste, harremanak ugaritu egiten direla sinistarazten da, eta gainera arrakastatsuak izango direla harreman horiek. Sinistarazten da joandako tokian "ederra" izango dela buru, edo bera izango dela begirada guztien jomuga, hau da, bera egongo dela guztiaren "erdigunean".

Aldizkarietan, iragarkietan, telebistan modaren azken joerak erakusten dira, urte-sasoi jakin batean ze kolore diren **puntakoak** eta zein ez, nolako **ilajea** eraman behar den eta nolakoa ez, eta zein makillaje primeran joateko edo bikotekidearen **gustagarri** izateko... Eta informazio hau urte guztian ematen da, **etenik** gabe. Gizarte geroz eta materialistago batean, axalekoago batean, zer izan behar duen, eta zer ez duen izan behar, esaten zaio entzule, irakurle edo ikusleari.

Kontsumitzaileari esaten zaio halako tokira joateko zein arropa komeni zaion eta zein ez; edo nahiz bizitzaren nahiz bere **nortasunaren** zein alderdi **garatu** behar dituen bestean atsegingarri izateko. Beste alderdi batzuk, garrantzizkoagoak, ez dira horrenbeste **lantzen** nerabeen artean: harremanak nola landu behar diren, nola hitz egin behar den halakoarekin edo **urliarekin**, ze hizkuntza erregistro erabili behar den segun eta non... Eta okerrera zera da, azken alderdi hauek sarritan **bigarren mailakotzat** jotzen direla, zeren hauxe iradokitzen da: "gorputz ederra baduzu, ia den-dena zaizu barkagarri".



"Beltza oso kolore iluna da"

Hori esan omen zion **fashion usteko neska** batek pastel-kolore argiz jantzita zihoan beste neska bati. Urte hartan **indarrean zegoen** kolorea ez omen zen beltza. Gai honen harira, agian Esoporen XXXV. **alegia** gogoratu beharko genuke. **Azeri** batek buru forma zuen artelan bat ikusi omen zuen basoan, zerbait zeraman ikusi eta gero, usaindu eta esan omen zuen azeriak: "Ederra irudia. Pena **garunik** ez izatea".■



- ALEGIA.**- Leyenda. Fable.
ARDURA.- Preocupación. Attention, préoccupation.
AZERI.- Lobo/a. Renard.
BAZERTU.- Alboratu. Arrinconar. Reléguer.
BEZERO.- Cliente. Client/e.
BIDE BERTSU.- Mismo viso, camino. Chemin pareil, même chemin.
BIGARREN MAILAKO.- Secundario/a. Secondaire.
BORTIZKI.- Gogorki. Agresivamente. Très forte.
DESITXURATU.- Desgarbadola. Dégigandé/e
ERANTZUN BEHAREKO GALDERA ASKO.- Muchas preguntas que responder. Beaucoup de questions à répondre.
ERDIGUNE.- Lugar central, centro. Centre.
ERROTU.- Sendotu. Enraizar. S'enraciner.
ETEN.- Interrupción. Pause.
EZAUGARRI.- Característica. Caractéristique.
FASHION USTEKO NESKA.- Chica que se cree (que viste) fashion, muy a la moda. Fille que s'habille à la mode.
GARATU.- Desarrollar. (S') agrandir, (se) développer.
GARUN.- Cerebro. Cerveille.
GUSTAGARRI.- Agradable. Agréable.
HAINBAT LORPEN.- Algunos logros. Quelques réussites.
IKARAGARRI.- Beldurgarria. De asustarse. Terrible.
ILAJE.- Txima. Cabello. Chevelure.
INDARREAN EGON.- Estar vigente, en boga. Être à la mode.
IRAUN.- Durar. Durer.
JOERA.- Tendencia. Tendence.
KANPOKO ITXURA.- Aspecto exterior. Apparence.
KOSTA AHALA KOSTA.- Cueste lo que cueste, a toda costa. Coûte que coûte.
LANDU.- Trabajar. Élaborer.
MARKA DA, GERO.- ¡Mira como son las cosas! ¡Pues vaya!. C'est du propre!
MUTUR.- Extremo. Extrémité.
NERABE.- Adolescente. Adolescent/e.
NORTASUN.- Izaera. Personalidad. Façon d'être.
ORAINTSU ARTE.- Hasta hace poquito. Jusqu'il y a peu.
OSAGARRI.- Complemento. Complément.
PUNTAKO.- Punterola, en boga. En vogue.
SUTSU.- Acérrimo/a. Fervent/e.
UKENDU.- Crema. Onguent.
URLIA.- Mengano. Un tel.
UZTARTUTA.- Atxikita. Unidos/as, junto con. Avec.
ZALETASUN.- Afición. Affection.
ZARTATU.- Resquebrajar, desconchar. Rompre.
ZIZTU BIZIAN.- Abiadura oso azkarrean. A toda pastilla. Très vite.